

Arando (Santiago) Mendia'ren Ikusgarriak

POR JESUS DE ALTUNA

Udagoiengo igande bat zan, egun argi eguzkitsu bat, goizian errian kistarran lenengo biarkuna bstatu ta, urten giñan iru adizkide, agetaiko baten beresbillan, antziña'ko uri Orduña'rantz; uri argi entzutetsu ori igaro ta, bertetik Berberana'ra doyan bitxabala ziar goiko ganera igoteko. Egun ortan, ezgenduban mendi'ra igoteko asmu bizirik eruan, baña, bein goialde aietan aurkitu giñanian, mendi zaletasunak bultzatu-ta, zuzendu gintza zan goialde aretan, bitxabalan ezkerrera, Sorkalde'ranta aurkituten dan Arando edo, Santiago izenaz gelago ezaqutzen dan mendira. Egiz esateko, bein bitxabal aldapa igon ezketiño, eztago ostoporik, lenengo antziñako burdi edo mando bidea ziar da, gero amiltegiai urtik jarraituaz mendi orren ganera, orduerdire nbaten elduteko, okerreko biderik artuteko bildur barik.

Mendi au, Arando, 945 neurkin goiti daituzala, zelaikada kirrutsu bat da eta beraz, eztauko beste erpintasunik, Ipar-aldera, Orduña alderako amiltegia baño, orixe bai, jauzkera arteza beratu! Bertara eldutia, baña, ongi merezi dau Bizka'aldera dagozan ikuskizun ederrak gaitik, eta jakiña, batezbera Orduña ta beren inguruak ikustarren.

Gorengo musturran, amiltegiren ertz-ertzian aurkituzen da mendi-kutxa polit bat Txarlazo'ko gallurrian dagon Antziña'ko Ama Neskutza'ren irudi berberakua, eta bere aibuan Iberduero'ko mendigizaliak ipiñitako tximist-zutoin edo poste irudiko polit bat. Mendizale ezaugarri ausk aurkitutze eztago gaitz, goialde ortan eztagolako noz edo noz aitz musturr bat edo, basa-okeran mordozka txiki batzuk baño beste zugatzik, amiltegi basterrian.

Mendi onek daukosan beste alderdi ikusgarri batzuk ikusi nai izan ezketiño, —da merezi dau ikustia— aitatutako kutxa atzian laga-ta, jarraitu gintzake —be ti Sorkaldera, —amiltegi edo prezipizio'ren ertzetik, eta, beste orduerdiren baten elduko gara Nerba edo Nervión iboia jaioten dan amiltegi ikeragarria: Ain da jauskera andi ta arteza alderdi ori, bildur izan litzake beren ertzeratutze. Orre-gaitik gaitz dago bertatik ikusten be'aldian jaioten da iturburua. Jauskera ikera-

garri orren be'aldeko zelaian aurkituten da Delika arabar erri txikitxua, ta ortik dato resæera Nerba ibaia Delika'n jayoten dala.

Alderdi ikusgarri ortan amaitutzen dan urbidia, edo beren albotik, goruntza Ego-aldera jarraitu ta, laster aurkituko gera Izarra (Araba) aldetik Losa'ra, au da; Sorkalde'tik Sårkalde'ra doin saldi ta mando bidia, lenago Santiago'ko bidia esaten leutsena... Bide ortatik jarraitu-ta, zugaztia'ren erdi-erdian da, zakon unetxu baten, da, artxulo batetik sortuten d aiturburu urtsu eder bat, lenago Ureta izenaz ezagutzen zana, uraska zar da guzti: Eta, iturria'ren albuan, orain ikusiten dira bertan antziña ego nzan Jagoba (Santiago) Deuna'ren basatxonuan ondakiñak, basatxonu edo ermita orretatik datorkio mendi onen «Santiago» izen ordea, ta, ba'litzake len esan dogun bidiana be, naita baten baño sarriago entzun dogu, bide ortatik erremez juaten ziralta Kompostela'ko Jagoba Deuna'n gana, Araba aldetik etorriten ziranak. Esaera oietzaz baña, eztaukegu ziurtasunik, ezin izandogulako lortu agiririk, baña, izan litzake egia Orduña ziar juaten ziranak asko ziran da.

Uret aiturburua, atxulo baten jaioten da, eta, berrogei bat neurkin garrenian beste zulo baten sartu geiago, ikusi eziteko, biarbada Nerba edo Nerbion'en sorlekurarte.

Arando izenak, zelaigune esan gura ei-dau, eta, orixe besterik ezta Garobel malloak edo sierra Salvada'ren Sorkaldian, bitxabalan eskerr aldian dagon mendi zugatzez apaindutako goi-zelaigunia. Eztauko beste mendi batzuk lako zorrotz-tasunik ez basati antik, baña, bai ikusgarri berezirik, mendizaleok ezagututzen alegindu biar geranak, batezbere euzko-luronetan jayo takuak, txar edo on geuriak diralako.